

## DONOSTIA KULTURAK HIRIAREN KULTUR TRENPUARI EUTSI DIO 2020KO UDAN

**\*Erakundeak puntarri-lana egin zuen berrirekitzetan, eta beste kultur ekitaldi batzuk bultzatu zituen udan zehar.**

**\*Lehen helburua sektore profesionalari laguntzea izan zen, ahal ziren jarduera eta kontratazio guztiei eutsiz hala kulturaren nola festetan. Horretarako, 1.400.000€ erabili dira joan diren hiru hilabeteetan.**

**\*Kultur ekitaldi eta guneak gozamenerako abagune seguruak izan dira udan, eta frogatu da ezen, osasun-gintariaren arauari men eginez, kulturak aurrera egin ahal eta behar duela.**

**\*Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu hiritarrei, gudan jarritako konfiantzagatik eta ikus-entzule zein kultur erabiltzaileek une oro izan duten jokabide eredu garriagatik.**

**\*26.000 sarrera saldu dira ordainpeko ikuskizun, kontzertu eta proiektuetan.**

**\*102.000 erabiltzaile pasatu dira joan den ekainean ateak berriro ireki zituzten DKren gunetatik: San Telmo Museoa, udal liburutegien sarea eta Victoria Eugenia Antzokia eta Antzoki Zaharra.**

**\*DK liburutegiek ohiko erabiltzaileen % 70 berreskuratu dituzte; 65.000 erabiltzaile eta 74.707 mailegu izan dituzte.**

**\*Nolanahi ere, hala kopuruek nola konparazioek ez dute zentzu handirik mundu osoa hartu duen hau bezalako pandemia batean. Donostia Kulturaren, balio handiagoa ematen diogu Donostia berriz ere kultur leku bizi eta bereziki aktiboa izan dadin egindako ahaleginari, denbora-tarte ezin laburragoan, konfinamenduaren ondoren... Eta frogatu dugu ezen, lau urte eta gero, Donostiak berea duela orain ere Kultur Hiriburutza.**

Donostia Kulturak giltza eman dio bere 30 urteko historian izan duen udarik atipikoenari.

Hiru hilabetez jardun gabe egon ondoren, joan den ekainean erakundea aitzindari izan zen inguruotan bere gune eszenikoak irekita, bai eta liburutegiak eta San Telmo Museoa ere. Helburu nagusi bat zuen, konfinamenduan emankizun-zerrenda bat eratzea bultzatu zuen helburu berbera: **kulturaren eta aisialdiaren sektoreari laguntzea**, egoera zail-zailaren aurrean baitzegoen; are zailagoa, hilabete horietan kultur sorkuntza eta online kontsumoa doan izan ondoren. Eta hori gure berezko tresnen bidez egin genuen batik bat: batetik, arte-sorkuntza kontratatuz; bestetik, kultur zerbitzuak eskainiz.

Hala, hiru hilabeteotan **Donostia Kulturak 1.400.000€ erabili ditu programazioan**, jakinda euro bakoitza 2.5 bihurtzen direla gizarteratzerako garaian. Hauetatik 800.000€ sormenari eskaini zaie eta beste 520.000 ekoizpenari.

Hasieratik genuen argi “kulturak aurrera egin behar” zuela, osasun-baldintzek hartarako bidea ematen zuten heinean. Eta hala, makineria oliotaturik eta egin beharrekoak eginik eszenarioei, edukierei eta guneak egokitzeko neurriei zegokienez, **“Donostia Kultura OSASUNEZ GOZATU! / Donostia Kultura ¡DISFRÚTALA CON SALUD!”** goiburua sortu genuen, eta horren inguruan ibili da hilabeteotako programazioa.

**ARTE PROGRAMAZIOA**ri dagokionez, hasierako ZERO Gala bat izan zen uda “desberdin” baterako sarrera, osasungintzako langileei omenaldia egiteko; desberdina baina programazio luzekoa, **26.000 sarrera** saltzea ekarri duena.

**Arte Eszenikoen** arloan, 20 ikuskizun eta **70 funtzio** izan dira Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean, tartean **lau estreinaldi** erabateko (*La habitación de María, Irabazi, Los mojigatos, Desmontando a Séneca* eta *Los Mojigatos*) eta honelako artistak izan zirelarik: Concha Velasco, Aitziber Garmendía, Ertza, Juan Echanove, Angeles Martín, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Jorge Javier Vazquez, Joseba Apaolaza, María Luisa Merlo, Jesús Cisneros, Jon Plazaola, Morfeo Teatro, Luis Merlo, Guillermo Ortega, Pez Limbo, Beatriz Rico, David Gutierrez, eta abar.

**Azpinarratzekoa ikus-entzule gazteenek euskarazko antzerkiari emandako erantzun ezin beroagoa:** Aitziber Garmendiaren *Txanogorritxotik otso emera* eta Jon Plazaolaren *Irabazi* lanei, zeinetan sarrera guztiak agortu baitziren. Pasadizo gehiago: *Desmontando a Séneca* lanak, Jorge Javier Vázquezekin, sarrera guztiak agortu ditu asteburuan, eta ikus-entzuleek omenaldi hunkigarria egin zioten Concha Velascori haren emanaldi batean.

**Zinearen arloan**, ekaineko 22, 23 eta 24an, aurtengo **Giza Eskubideen Zinemaldia** izan genuen Antzoki Zaharrean, Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatuz. Edizio honetan, hiru dokumental eman ziren: *Apaga la luz y verás* (2020), Ibon Casas ikusmen mugatuko musikari eta konpositore donostiarrari buruzko dokumental autobiografikoa; *Ernest Lluch, libre y atrevido* (2020), ETAk eraildako politikari sozialistaren ingurukoa; eta *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* (2020), Euskadiko kontzientzia-eragozpenaren mugimendu antimilitaristari buruzkoa.

**Musika programazioari** dagokionez, berriz, ekainean ekin zion, Zea Mays (edukiera erabat bete zuen), Lou Topet eta McEnroe taldeen kontzertuekin; eta uztailean eman zion buru, **Jazzaldia**rekin, zeina Donostiako udako lehen musikaldia izan baitzen bere edukiak eta prozesuak egokitzen, musikaririk onena eskaintzeko, bai eta une gogoangarriak utzi ere. Lehen aldiz, Donostiako Jazzaldiko hiru sari eman ziren, jazzeko hiru musikari handiri eman ere: Jorge Pardo, Chano Dominguez eta Iñaki Salvador. **7.200 zalek** gozatu zuten jazzaren onenaz ohiko agertokietan, zeinak hartarako egokitu baitziren berriz ere.

Abuztuan, azkenik, Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrenari eskainitako zikloa berreskuratu zen.

**KULTUR ZERBITZUEI** dagokienez, Donostiako liburutegiek ekainaren lehenean ireki zituzten berriro ateak, mailegu-zerbitzua egiteko eta aurrez maileguan utzitako dokumentuak itzuli ahal izateko (kontuan izan behar da irakurleekin batera 37.000 liburu ere itxialdian egonak zirela).

Hasiera oso geldoa izan zen, baina udako hilabeteetan gora egin du erabilerak, eta **erabiltzaileen % 70 itzuli dira dagoeneko liburutegietara.**

Datu adierazgarri gehiago: 74.707 dokumentu utzi dira maileguan, eta 64.851 bisitari izan dira sare osoan. Hona hemen eskainitako zerbitzuak: sarbide libreko online katalogoaren kontsulta, mailegutuan hartutako liburu eta beste materialen itzultzea, materialak mailegutuan uzteko zerbitzua, aretoko irakurketa eta ikasketa, alde zuzeneko hitzordua hartutako Internet Zerbitzua, KZ guneak eta liburutegi bakoitzeko zerbitzu informatikoak; bai eta beste online zerbitzu batzuk ere, hala nola Liburutegi digitala, e-liburutegiko online maileguak.

Udako hilabeteetan, uztaile-abuztuetan alegia, **“Online ipuinaren ordua”** zerbitzua eskaini dugu, 43 ipuin-saio hiriko zenbait tokitan grabatuak. 4.471 ikustaldi izan dituzte, eta 42 familiak erakutsi diote beren atxikimendua jarduera horri.

Berritasun bat: Liburutegiek **liburu-funts bat osatu duten COVID-19ari buruz.** Hona hemen zenbait izenburu: *Coronavirus* (Pérez Agustí), *En primera línea* (Gabriel Heras), *En tiempos de contagio* (Paolo Giordano), *La gran manipulación* (Jano García), *Izurria* (Slavoj Žižek), *Lo imprevisible* (Marta García Aller). 19 izenburu informazio-egarriz den edonorentzat, hainbat ikuspuntutatik.

Baina garaiotan ere ona da gogoratzea **biblioterapia**, irakurketaren sendatzeko ahalmen ukalezina, lagungarri baitzaigu gogoeta egiteko bai gertatzen ari zaigunaz eta bai hortik ihes egiteko moduez. Horregatik, betidanik, durduza-garaietan gehiago irakurri ohi da. Izan ere, Alberto Manguelak dioenez: “aldi bakoitzak du bere liburua”.

Urritik aurrera, aurrez aurreko jarduera egingo dugu berriz ere 6-8 urte arteko haurrentzat. Izen hau izango du: “Zu irakurle, gu kontalari”. Oro har, berriro ekingo zaie aurrez aurreko literatur solasaldiei, irakurketa-klubari, liburutegi-egunari. Irailean, Poesia Orduak ekitaldiaren bi saio egin dira, eta hilaren 16an Poesia eta Pentsamendua izeneko jarduera egingo da.

**SAN TELMO MUSEOA** Ekainean berrieki zenetik, **17.826 erabiltzailek bisitatu dute** Museoa. Eta pentsatzekoa zenez egungo egoera ikusirik, Museora bisitan etorri den jendearen artean, % 50 Euskal Herrikoak izan dira, iaz baino % 22,91 gehiago.

San Telmok itxi zen garaian ikusgai zeuden erakusketa berberak eskainiz ireki zuen berriro. Erakusketa iraunkorraz gainera, beste hauek bisitatu ahal izan dira ekainetik hona: *Poética retrospectiva. Fondo Fotográfico Antton Elizegi; El diablo tal vez. El mundo de los Brueghel eta Mil manos sin rostro; denak ere amaituak dagoeneko*. Ekainaren azkenetan, Museoak *Postigo. Crónica de una época* erakusketa inauguratu zuen, zeinak oso harrera ona izan baitu gipuzkoarren artean, Fernando Postigo argazki-kazetariak 1977. eta 2001. urteen artean hartutako irudiak biltzen baititu. Ireki zenetik, 4.000 bisitatik gora izan ditu. Uztailean, gainera, Jazzaldiaren eta Musika Hamabostaldiaren kontzertuak eman dira, eta udetako espirituari eutsi ahal izan zaio hartara Museoa.

Orobat, nabarmentzekoa da Museoko bazkideei eskainitako irekiera berezia, aukera eman baitzaie Museoa eskusiboki bisitatzeko eta gozatzeko, jendearentzat itxita egon ohi den ordutegian.

Ugullu dagokionez, Historiaren Etxea ezin izan da ireki; Museoak, alternatiba gisa, eta Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan, mapa bat eta app bat argitaratu ditu, non ibilbide bat proposatzen baita mendian zehar, informazio gehigarriaz osatua mendiaren alderdi historiko-ondarezkoez eta naturalez.

Bistan denez, 2020rako aurreikusitako erakusketen egutegia aldatu egin da, eta jakin-min handia sortu duen erakusketa bat, Elkanorena, 2021era atzeratu da: *Bidaia luzeena, lehen bira munduari*. Horren ordean, San Telmok bere ondareaz egindako proiektuak aurkeztuko ditu, Hala nola *Urgullen babesean* (urriaren 9tik 2021eko urtarrilaren 17ra), *Museo bikoitza* (urriaren 30etik aurrera) eta *Artea abian* (azaroak 13 – 2021eko urtarrilak 17), Kutxa Fundazioarekiko lankidetzan.

**JAIETAKO JARDUEREI** dagokienez, asko bertan behera geratu dira, osasun-baldintzek ez baitzuten gomendatzen jende-taldearen parte hartzea ekarriko zuen inolako ospakizunik. Esate baterako, ez dira ospatu ez Aste Nagusia, ez hango Su Festen lehiaketa, ez Euskal Jaiak... Ezta auzoetako zein etxe erregionaletako festak ere.

Esandako helburuez, hots, **sektorean kontratazioa bultzatzea eta hirian uda kutsu halako bati eustea**, Festen Unitateak bere irizpide guztiak aldatu eta protokolo berriak ezarri ditu: agur gauari, jarduerak izena aurrez emanda egitea eta inoiz ez izatea oso jendetsuak.

Hala, arau horien pean egin dira “San Joan bezpera” edo “Abuztuaren 31”. Baina nabarmenena “Abuztua Donostian” programa izan da. **115 jarduerarekin**, hiritarren konplizitatea lortu du hiri honetan jai gehien dituen hilabetearen.

Jarduera horietako 27 izena aurrez emanda egin ziren, eta horietatik 22tan leku guztiak bete ziren. Guztira, **14.326 lagunek gozatu dute “Abuztua Donostian”** kirol jardueraz, haurrentzakoek, gastronomikoez...

Azkenik, egin berri ditugu 2020ko **Donostiako Estropada**, hil honetako 2, 3, 6 eta 13an. “Aurten, estropadak etxetik” goiburupean, kirol norgehiagoka horretaz gozatu ahal izan da komunikabideen bidartez, eta Oriok (emakumezkoetan) eta Hondarribiak (gizonezkoetan) irabazi dute Kontxako Bandera. Dena den, klubetako 1.360 lagunek zuzenean hartu dute parte, eta, beste kide guztiekin batera, guztira 1.685 lagun izan dira maila handiko kirol proba horretan. Gainera, estropaden inguruan, dantza, bertsolaritza eta bestelako kultur jarduera batzuk egin ziren, eta 835 lagunek hartu zuten parte.

Ez dira ohiko kopuruak jarduera hauetan, egungo osasun-egoeraren ondorioz, eta irakurketa positiboa egiten dugu, batez ere hirian giroa hobetzen lagundu dutelako udako aldi arraro honetan.

\*\*\*

Eskola-ikasturtean sartu berri gara **orain**, eta hor dugu gure lan-prozesuen esperientzia, segurtasun-berme handienarekin. Donostiako auzoetako kultur etxeak behin betiko irekita egin dugu hori. Kultur etxeotan gaur, irailak 14, hasi da neguko ikastaroetan izena emateko prozesua. Ikuskizunei dagokien programazioa datorren asteazkenean emango dugu, Donostia Kulturaren beste programazio guztiarekin batera.

Hala sartu gara 2020ko udazkenean, gogo eta indar handiz gure bidean jarraitzeko kultur sektoreari lagundu eta ahalik eta gozagarriena izan dadin, eta kultur trenpu onari eusteko helburuz, donostiarrek eta gipuzkoarrek oro har oso ondo erantzuten baitiote horri; baina baita egoera aztertzeko eta kontuz jokatzeko mekanismo guztiak prest ditugularik ere.

## DONOSTIA KULTURA CONSIGUE MANTENER EL NERVIO CULTURAL PARA LA CIUDAD DURANTE ESTE VERANO 2020

**\*La entidad ejerció de avanzadilla en las reaperturas, y de vagón de arrastre de otras citas culturales a lo largo de todo el verano.**

**\*El primer objetivo ha sido apoyar al sector profesional, mantenimiento la actividad y contratación posible tanto en cultura como en fiestas. Para ello se han destinado 1.400.000 durante estos tres meses.**

**\*Las citas y espacios culturales han resultado seguros para su disfrute durante este verano; Demostrando que, siguiendo las normas de las autoridades sanitarias, la cultura puede y debe seguir adelante.**

**\*Agradecemos muchísimo la confianza que la ciudadanía ha depositado en nosotros y el comportamiento ejemplar del público y los usuarios culturales en todo momento.**

**\*Han sido 26.000 las entradas vendidas en espectáculos, conciertos y proyecciones.**

**\*102.000 han sido los usuarios que han pasado por los centros DK que reabrieron en junio pasado: el museo San Telmo, la red de bibliotecas municipales y los teatros Victoria Eugenia y Principal.**

**\*Las bibliotecas DK han recuperado un 70% del público habitual, con 65.000 usuarias/os y 74.707 préstamos realizados.**

**\*En cualquier caso, tanto las cifras como las comparativas tienen poco sentido en medio de una pandemia mundial como ésta. En Donostia Kultura valoramos más el esfuerzo realizado, tras el confinamiento y en un tiempo record, para devolver a Donostia a su posición de plaza culturalmente viva y particularmente activa... Y el haber demostrado que, 4 años después, San Sebastián sigue ostentado la Capitalidad Cultural.**

Donostia Kultura cierra el verano más atípico en sus 30 años de historia.

Tras tres meses de inactividad, en junio pasado, la Entidad se adelantaba al entorno con la reapertura temprana de sus espacios escénicos, además de las bibliotecas y del Museo San Telmo. Primaba un objetivo (que ya había impulsado con la creación de una parrilla programacional *ad hoc* durante el confinamiento): el de **apoyar al sector de la cultura y el ocio**, que se enfrentaba a una situación evidentemente difícil, acrecentada por el auge de la creación y consumo cultural online gratuito durante esos meses. Y lo hicimos básicamente con las herramientas que nos corresponden, la contratación de creación artística por un lado, y la oferta de servicios culturales, por otro.

Así, durante los meses de julio y agosto, **Donostia Kultura ha destinado 1.400.000€ a su programación**, sabiendo que cada euro de su inversión se traduce en 2,5 euros vertidos a la economía local. De dicha cantidad, 800.000€ se han destinado directamente a las y los creadores y 520.000 a la producción (técnicos, profesionales de la escena, auxiliares de sala, etc...).

Desde el principio teníamos claro que “la cultura debía seguir adelante” siempre que las condiciones sanitarias lo permitiesen. Y, así, con la maquinaria engrasada y los deberes hechos en cuanto a distintos escenarios, distintos aforos y medidas de adaptación de los espacios, creamos el reclamo “**Donostia Kultura OSASUNEZ GOZATU! / Donostia Kultura ¡DISFRÚTALA CON SALUD!**” entorno al que ha girado la programación de estos difíciles meses.

En el ámbito de la **PROGRAMACIÓN ARTÍSTICA**, una Gala CERO inicial, en homenaje al colectivo sanitario daba paso a **un verano “diferente” pero con una extensa programación que se ha traducido en la venta de 26.000 entradas**.

En el ámbito de las **Artes Escénicas**, han sido 20 los espectáculos con **70 funciones** entre el Teatro Victoria Eugenia y el Teatro Principal, con **cuatro estrenos absolutos** (“La habitación de María”, “Irabazi”, “Los mojigatos” y “Desmontando a Séneca”), y nombres propios de la escena como Concha Velasco, Aitziber Garmendía, Ertza, Juan Echanove, Angeles Martín, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Jorge Javier Vazquez, Joseba Apaolaza, María Luisa Merlo, Jesús Cisneros, Jon Plazaola, Morfeo Teatro, Luis Merlo, Guillermo Ortega, Pez Limbo, Beatriz Rico, David Gutierrez, etc...

Cabe destacar aquí la **entusiasta respuesta del público más joven a las propuestas de teatro en euskera**, con obras como “Txanogorritxotik otso emera”, de Aitziber Garmendia, e “Irabazi” y “Rita” de Jon Plazaola, que han colgado el cartel de “no hay entradas”. Más anécdotas: cómo “Desmontando a Séneca” con Jorge Javier Vázquez también ha agotado sus localidades cuatro funciones durante este fin de semana pasado, y cómo el público aprovechó una de sus funciones para brindarle un sentido homenaje a Concha Velasco.

En **el ámbito cinematográfico**, los días 22, 23 y 24 de junio tuvo lugar en el Teatro Principal la **Muestra de Cine y Derechos Humanos**, organizada por el Área de Derechos Humanos del Ayuntamiento y Donostia Kultura. En

dicha muestra se proyectaron tres documentales: Apaga la luz y verás (2020), documental autobiográfico sobre el donostiarra Ibón Casas, músico y compositor con baja visión; Ernest Lluch, libre y atrevido (2020), en torno a la figura del político socialista, asesinado por ETA; y Bi urte, lau hilabete eta egun bat (2020), sobre el movimiento de objeción de conciencia y antimilitarista en Euskadi.

En cuanto a la **programación musical**, ésta arrancaba también en junio con Zea Mays (que agotó el aforo), Lou Topet y McEnroe; para aterrizar en julio con el **Jazzaldia**, como el primer festival del verano donostiarra que adaptó sus contenidos y procesos para poder ofrecer a su público la mejor música, con memorables momentos. El 55 Jazzaldia fue el primer festival Internacional de Jazz que anunció su celebración y programa, tanto en España como en Europa. Y el primero que se celebró 100% presencial. Además, por primera vez se entregaban tres Premios Donostiako Jazzaldia, a tres grandes del Jazz: Jorge Pardo, Chano Domínguez e Iñaki Salvador. **7.200 aficionados** disfrutaron así de lo mejor del jazz en los escenarios habituales del festival que se recuperaron y adaptaron ex profeso.

En agosto, por último, se recuperaba el ciclo destinado al **150 aniversario de Beethoven**.

En cuanto a los **SERVICIOS CULTURALES**, las bibliotecas donostiarras reabrieron sus puertas el 1 de junio, al principio tan solo para el servicio de préstamo y devolución de los documentos prestados ( hay que tener en cuenta que 37.000 libros habían permanecido confinados junto a sus lectores/as).

El arranque fue tímido pero se ha ido recuperando durante estos meses de verano, de forma que **el 70% de los usuarios y usuarias ya han vuelto a las bibliotecas DK**.

Más datos representativos: Se han **prestado 74.707 documentos** y **64.851 han sido los visitantes** de toda la red de bibliotecas. Los servicios ofrecidos son: Consulta del catálogo de acceso público en línea, devolución de los libros y materiales cogidos en préstamo, servicio de préstamo de materiales, lectura y estudio en sala, Servicio de Internet con cita previa, los KZ y los servicios informáticos de cada biblioteca; además de servicios online como Liburutegi digitala, los préstamos on-line e-liburutegia.

Durante los meses de verano, julio y agosto hemos ofertado el servicio de "**Hora del cuento on-line**" han sido 43 sesiones de cuentos grabadas en distintos lugares de la ciudad, con 4.471 visualizaciones, y 42 familias que han seguido fielmente la actividad.

Una novedad: Las bibliotecas han constituido un pequeño **fondo de libros sobre El COVID-19**, los virus. Algunos títulos Coronavirus de Pérez Agustí, En primera línea Gabriel Heras, En tiempos de contagio de Paolo Giordano, La gran manipulación de Jano García, Izurria de Slavoj Zizek, Lo imprevisible de Marta García Aller. 19 títulos para quién quiera informarse sobre la pandemia que estamos viviendo desde todos los puntos de vista.

Pero en estos tiempos también es bueno recordar la **biblioterapia, el indiscutible poder curativo de la lectura**, que ayuda tanto a reflexionar sobre lo que nos está pasando, como a escapar de ello. Y es que, tradicionalmente, en tiempos de zozobra, se lee más. Porque, como dice, Alberto Manguel: "para cada tiempo hay un libro"

A partir de octubre volvemos a realizar **la actividad infantil de forma presencial** para niños y niñas de 6-8 años. Se llamará “Zu irakurle, gu kontalari”. En general se reanuda de forma presencial las tertulias literarias, el club de lectura, el día de la biblioteca. En septiembre hemos celebrado las dos sesiones de Poesia orduak y la actividad Poesia eta Pentsamendua se celebrará el día 16.

**MUSEO SAN TELMO** Desde su reapertura el 2 de junio, más de **17.826 usuarios/os** han visitado el museo. Y, como era de esperar ante la situación actual, entre el público que ha visitado el museo el 50 % ha sido local (País Vasco), 22,91 puntos más que el año pasado.

San Telmo reabrió con la misma oferta de exposiciones que había en el momento de su cierre. Además de la exposición permanente, se pudieron visitar a partir de junio *Poética retrospectiva. Fondo Fotográfico Antton Elizegi; El diablo tal vez. El mundo de los Brueghel y Mil manos sin rostro*, todas actualmente clausuradas. A finales de julio el museo inauguró *Postigo. Crónica de una época*, exposición que está teniendo una gran acogida entre el público guipuzcoano por estar centrada en las imágenes tomadas por el fotoperiodista Fernando Postigo entre los años 1977 y 2001. Desde la apertura ha recibido más de 4000 visitas. En julio, además, se han ofrecido conciertos de la mano del Jazzaldia y Quincena Musical, pudiendo mantener así la esencia de los veranos en el museo.

Asimismo, cabe destacar la apertura especial ofertada a socios/as del museo que han tenido la oportunidad de visitar el museo y disfrutarlo en exclusividad en un horario en el que habitualmente está cerrado al público.

En cuanto a Urgull, si bien no se ha podido abrir la Casa de la Historia; El museo, como alternativa, y con la colaboración Cristina Enea Fundazioa, ha publicado un mapa y una app donde se propone un recorrido a lo largo del monte con información adicional sobre los aspectos histórico-patrimoniales y naturales del monte.

Lógicamente, el calendario de exposiciones previstas para este 2020 ha sido modificado, quedando pospuesto al 2021 una de las exposiciones más esperadas, la de Elcano: *El viaje más largo, la primera vuelta al mundo*. En su lugar San Telmo presentará proyectos realizados sobre el patrimonio propio como *Al abrigo de Urgull* (del 9 de octubre al 17 de enero de 2021), *Museo bikoitza* (a partir del 30 de octubre) y *Artea Abian* (13 de noviembre – 17 de enero de 2021) en colaboración con Kutxa Fundazioa.

En cuanto a las **ACTIVIDADES FESTIVAS**, muchas han sido las citas canceladas ya que las condiciones sanitarias no recomendaban celebración alguna que supusiera la participación de mucha gente. Así, no se han celebrado ni la Semana Grande, ni su concurso de Fuegos Artificiales, ni las Euskal Jaiak... Tampoco las fiestas en barrios, ni las de casas regionales.

Con los objetivos descritos de **impulsar la contratación en el sector y de mantener cierto tono veraniego en la ciudad**, la Unidad de Fiestas ha modificado todos sus criterios e incorporado nuevos protocolos: adiós a la noche, actividades con preinscripción, y nunca multitudinarias.

Así se han vivido bajo estas nuevas fórmulas la "víspera de San Juan" o el "31 de Agosto" . Pero lo más destacado ha sido el programa "Abuztua Donostian". **Con 115 actividades**, ha logrado la complicidad de la ciudadanía durante el mes tradicionalmente más festivo para la ciudad. 27 de estas actividades fueron con preinscripción y de ellas, 22 agotaron sus plazas. En total **14.326 personas han disfrutado en "Abuztua Donostian"** de actividades deportivas, infantiles, gastronómicas...

Finalmente, venimos de celebrar las Regatas de San Sebastián 2020, los días 2,3,6 y 13 pasados. Bajo el lema "Este año, las regatas desde casa" se ha podido disfrutar, a través de los diferentes medios de comunicación, de esta competición deportiva, en la que la tripulación de Orio en la modalidad femenina y Hondarribia Arraun Elkarte en la masculina, han logrado las respectivas **Banderas de la Concha**. Aún así, 1.360 miembros de los clubes han participado directamente, que junto al resto del personal involucrado, suman 1.685 personas presentes en esta prueba deportiva de gran envergadura. En torno a las regatas además, se celebraron actividades culturales de danza, bertsolaritza, etc, con la asistencia de 835 personas.

Son cifras inusuales para estas actividades, reflejo de las circunstancias sanitarias del momento, de las que hacemos una lectura positiva, sobre todo por su contribución a un mejor ambiente en la ciudad durante este "enrarecido" periodo estival.

\*\*\*

Entramos **ahora** en curso escolar, y la experiencia ya avalada de nuestros procesos de trabajo con máximas garantías de seguridad. Lo hacemos con la apertura definitiva de los centros culturales en los distintos barrios donostiarras. Centros que inician hoy, 14 de septiembre, el proceso de matriculación de sus cursos de invierno. Y cuya programación en materia de espectáculos daremos a conocer este miércoles próximo con el resto de la programación de Donostia Kultura.

Así entramos en el otoño 2020 con muchas ganas y fuerza para seguir haciendoc amino en aras a proteger al sector cultural y festivo en lo posible, y con el objetivo de mantener este "nervio cultural" al que tan bien responden las/los donostiarras y guipuzcoanas/os; Pero - no puede ser de otra manera - también con todos los mecanismos de análisis permanente de la situación y precaución desplegados.